

ERAIKINARI BURUZKO INFORMAZINO GEHIGARRIA

Lantegiaren eraikina Pedro Ormaza arkitekto bermeotarrak proiektatu zuen 1942an eta bere garaiko arkitektura industrialaren adibide ona da. Lantegiaren industria-nabearen eraispena ondoren, bulego gunea bakarrik geratzen da Askatasun Bidea kalerantz ematen duen fatxadarekin. Bermeoko kultura-ondarearen parte modura, eraikina berreskuratzea hartu behar da helburutzat.

Eraikinaren gutxi gorabeherako azalera 460 m²koa da, terraza gainean gaur egun dauden gehigarriak desagertu egin behar direla kontuan harturik. Gainera, orain bideratzen ari den Bermeoko 6.1.2 Egikaritze-Unitateko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak ezartzen den moduan, beheko solairuan pasabide publiko bat utzi beharko da Askatasun Bidea eta Erreine Zubi kaleen arteko komunikazioa posible egiteko, proposatzen den etxadi barruko gunen berriaren bitartez. Bestalde, dokumentuan aipatzen da eraikinaren erabilera kulturalerako 298 m² handitzearen aukera badagoela. Beraz guztira 758 m²ko azalera erabil daiteke.